EUZKEL -- ATALA

Euskel - Olerti - Jala

ERRENDERI

1930-garagarril-leena

JAI-AGIRIA

Gaurkoz laburki, onaa emen:

Goizean: Gipuzko-Aldundi'ko leendakakaria, Errenderi'ko udala, "Eusko-Ikaskuntza"-ren "Euskaltzaindi"-ren, ta EUSKALTZALEAK'ek maiteki emendixek deitzen ditun gañontzeko bazkun euskozale guzien ordezkariak, txistulariek "Alkate-soñua" ari dutelarik eliz nagusi'ra abiako dira, bertan, erriaren buru, meza nagusia entzunaz.

Meza-ondoren, "On-bide" antzokian, jai batzarre edo "velada" ederra, arau ontaz: Laborda'k abesti bat. "Aitzol"-dar J.'k itzaldia, "Euskel-Olertia"-tzaz. Olerki-batzaldiko sari-banatzea. Bereala, Euskadi'z besteko ludi-erdian jaio ta ogei urtez bizia izan arren euskera jatorki dakian andereño egoki batek batzaldiko olerki onenak oguziko ditu. Urrengo, mutiko-nexkatoen olerki-esate batzaldia.

Batzarre orren ondoren zabalean, erriko eresbatzak, eta bertako, Donostia'ko ta Tolosa'ko txistulari yaioak elkarrekiko ta banakiko je-aldi bikañak ariko dituzte.

Bazkaria

Bazkal-ondoan: erriko enparantzan, dantzari txikiak. Aurrei bereizki eskeñitako "Txontxongillo"-antzerkia edo "giñol"-a; naiz azitzoek ere parrez ler-egin bear Bertsolari-leiaketa eder bat, Bidasoa'z andiko bikañen batzuk ere tartean dirala, J. I. Betegarri ta gorputzez astindugarri, erromeri alaia.

Apal-ondoan, "On-bide"n, Donostia'ko "Euskal-Iztunde" aipatuak antzerki-jaia: "Bost Urtean" eta besteren bat antzeztuz

Egun osoan, berebiziko txabola apañean, euskel-idaztiak egongo dira salgai. Gafiera, andereño, zerutar batzuk ibilliko zaizkizute EUSKALTZALEAK-en bazkide berri billa: ez alaba eder aiengandik iges!

ERRENDERI'KO BAZKARIA

BEREALA erri bakoitzetik biali bear dezute barauzale etzeratenen izen-salla. Errenderi'ra, Comisión Día Poesía Vasca'ri. Illaren 20'gnerako. artu bearrak dira izenok. 25'gnerako txartelak egin ta banatu nai lirake.

Onaa orain EUSKEL-OLERTI-EGUNEKO.

BAZKAL-AGIRIA

Zizka-mizka anitz.
Ugoloa.
Legatz erregosia.
Arkumeki barazkiz naasia.
Ollasko errea lusagarrekin.
Gozoki ta igali.
Ardoa, sagardoa.
Akeita, edari bizi.
Saneurria, amar laurleko.

"EUSKALTZALEAK".

JAUTARKOL'EN AHAPALDIAK

ZAZPIDUN NEURTITZAK

Nere azkeneko bi lantxoak onera bialdu ta gero, "Jaungoiko-Zale" aldizkingian Gotzon (M. B. S.) izenarekin gai au berbera erabiltzen dala ikusten det. Asi detan ezkero, amaituko ditut aztertutakoak, ta idazle orren iritzitik ditudan alde txikitxikiak ere esango ditut.

Nuan gaurko gayera. Zazpidun neurtitzarekin euskal-oleskariak erri osoak, bi ahapaldi zabaldu ditu. *Aldiskakoak* dira biak. Neurtitz bakoitzak luzeagoak ta amayera berdiñezak, ta bikoitzak laburragoak ta amayera berdindunak dituztenetakoak biyak.

Erak artu dezateken aurkezpenak abek dira:

1'koarena: 7+5=7+5=...
2'garrenarena: 7+6=7+6=...

Bigarrena au "Gernikako Arbola"-rena da. Juan dan mendean geyen zabaldutako zortzikoarena. Egitan zortziko bat ez dala ahapaldi ori esana daukat. Ahapaldia laukoan bukatzen da berez, ta berdin egin diteke era orrekin bai seiko ta bai amarreko ahapaldia. Jatorrizko zortzikoa ez da-ta.

Jautarkol'ek bi era oyekin ta oyen kideko ta ondorengoekin olerkiak egin ditu.

Zazpi olerki ba ditu lendabiziko era darabilkitenak. Eredutzat ahapaldi bat ara:

"Eguzkia ba doa—mendi tartera: —mendi goiak gorritzen ta illuna bera". Artzai neska).

Ta bost olerkietan bigarrengo era ikusten det. Ereduz ona ahapaldi bat:

"Negar ta negar daukat—biotza barruan: —Zerurontz igo nai ta—egan ezin juan". (Jaun-artu-aurrean).

Jautarkol'ek berak zortziko ezik lauko asko egiten ditu era onen bidez.

ONDORENGO AHAPALDI BERRIAK

Lendabiziko lantxoan ikusi genduan asmakizun berarekin Jauregi jaunak oyetatik bi ahapaldi berri sortu ditu. Neretzat beintzat berriak dira. Ez oleskari zar ta ez berrietan ez ditut iñoiz orain arte arkitu ta.

Asmakizuna zazpidun neurtitz bat geltzea izan da.

Ta onekin 7+7+6=7+7+6 seikoa sortu du bigarren ortatik. Ondo asmatua neretzat. Zuek erabaki:

"Uso onentzako nai det—usotegi osoa—baratza guzia—t'onentzako bakarrik—ainbeste maite dedan—nere zitoria". (Antzekia).

Lendabizikoak berriz 7+7+5=7+7+5 era eman bear. Ona nola:

"Eguskia iya illean—itsasoai musuka... —illunabarra...— "Aitzak itsas ertzean —astindutzen, orruka—itsas zakarra..." (Bizitza ta eriotza).

Ahapaldi onetan Jauregi'k amayera neurtitza guztitan berdindu du. Neretzat au ez da neurria bezin oargarria.

Bestetan bezela asmakizun abetan zuzenera jo dula deritzait.

KIDEKO BESTE AHAPALDI BAT

Laz olerki zarren azterketa egin nuanean, or goyen azaldu ditudan ahapaldiak bere kideko beste bat zekartela igarri nuan. Itzik ez nun esan. Kideko ahapaldi orretan olerki enbat egiten sayatu nitzan. Ta etzitzaidan gaizki belarrira erortzen. Orretan negon, "Biozkadak" idaztia irakurri detan arteraño.

Nere ametsak onekin poto. Jauregi'k —bein ba da ere—ahapaldi ori asmatua zeukan. Garbi-garbi dakarkigu "Illeta-eresia izena dun olerkiaren amayeran.

"Nere illobiko gurutz
arrizkoa
esnatu-arte zaindu
nere loa".

Nik asmatua uste izandako onen era, 7+4=7+4 dezute, jaunak.

GALDAKAO'TIK

"IMANOLE"-RI

Gona-labur ta ule-motza ¿ete dozu zuk bere? ¡Bururatu be egitia orrelakuak! esan ete dozu zeure artian. Nitzaz ipiñi dozuna, igaro dan astijan, neuk ulertzen neban lez, ¿ulia artzeko eran, ala, benetan esaten zeban? Nik ostera be mutilzar egon biarra izango dot; ta mutil-zar egotia, oba dala uste dot, gaur neskatilla politak, apain, dantza-nastu, gona-labur, ulemotz ta erdel-zale uts-utsak neure etxalde onetara ekartia baño. Zuk, antza dozunez orretarikua ez dozu izan biarr, benipein, euskeltzalia bai-zara (atan be errimia) erakutsi dozun lez, ezta atzerridantza-zalia be, ta zu lako bat artuko neunke, ¡bai dago gure etxaldijan zu lako emakume baten biar-izana! ta aldi onetan, gauza anditzat dot ori.

Diñostazu txadonako atietan bakarrik ez dala txapela erantzi biar ta garriko azur aur ezitzeko. Zure onu edo kontsejua niretzat ez da egokija, biar dan tokijan bai dakit txapela erantzi biar dana, baña benetako euzkotarrak, zintzuak, gizonaren aurrian, ez dau azurra, garrikua, ezi biarrik. Orrelako gauzak egoki-egoki egiten dira Ebro-aruntzdik geure artera etorri jakuzanen artian, baña, neure bijotzak ez dautz orretarako aurrerapiderik emoten. Ezitzen aziko ba'neintz bere, biar ba'da, ezi-orduko, auzi egingo neunke ta egokijago datorkit, orain arte-lez jarraitutia. Dana dala, eskarrak damotzudaz, onu ori bidaldu daustazulako.

"ELEXONDOKO BAT"-ERI

Itz-neurtubetan ta txukun-txukun jarririk ¡zein polito diñozun Galitzi ete dan gure erri gaxo au! ¿Lotsatu ete zara ba emen ikusi dozunaz? Zeure jayoterrijan gona ta ule-motz darabiltzan neskatillarik ¿ez ete dira? ¿Lizunkerija ta lotsabakokerija bakarrik ikusi ete dozuz erri polit onetan? Galitzi ete dan diñozu ta ori esateko etzara iñoiz Galitzi-aldijan izan, ze, nik entzutia dodanez, Galitzi'n euraen izkuntzia bakarrik egiten da, ta itxura danentz egija izan biar. Emendik ikusten doguzan atarki-konpontzale ta zorroztzaliak, euraen artian ¿zelako izketia erabilten dabe?

Emen Galdakao'n egiten dan izketia eleganteak darabillena da jantzi geyenak, neskatillen artian, beste batzuben antzekuak (gure amamak, iñoz ikusi be ez eban olakorik egingo, baña). Emen zuk biar ba'da, ez dozu jakingo, baña ozte edo jentia "a lo cursi" bizi da.

Neskatillak onelan edo arelan ikusten ba'dozuz, ez ikaratu, gurasobak alantxe nai dabe ta.

Erderia barriz "tirri-torro" ¿darabillela? Gurasobak alegintzen ezpa dira euzkeraz erakusten ¿zelan egingo dabe seme-alabak ba? Gurasobak, danak ez, geyenak lenengo dagikena euraen alabakin (ama izaten da) ulia moztu ta jantzi labur laburrak egin.

Ikastola'ra bidaltzen dabezanian, artian euzkeraz egiten izan ba'dautse be, bein ikastola'ra ezkero, erderaz ikasi biar dabela ta erderaz egingo dautso, berak jakin ezarren be, erderaz ezpa dagitzo be, antza emon gurarik benipein, ta atzekoz aurrera baño ezpada be urratuko dau eztarrija.

Anditxubak egiten dirianian zeya edo plazarako bidia be erakutsi biar ba, zinekua be ta orrelan ibilli ezkero, beste batzuben antzian ibilli biar dabela ta, jantza nastubetara juatia be ezin galerazo ¿zertarako? egun argiz (illunaz ¿ez) ta guztijak ikusteko tokijak egiten daben lez... gaztijak jolastu biar dabela ta...

"Elexando'ko bat" zure jayoterrijan orrelako gauzarik egiten ezpada, ¡zorijoneko uri polita! izan biar dau benetan.

Gauza orrek ta eskontziak ekarriko leuztazan biarkun andijak gogoraturik ¡zelako oldozmenak datorkidaz! ¡Ostera be "Imanole"-k ezaten eustan lez, mutil-zar egon biarko dot!

"KIRIKIÑO" (G. B.) ZANAREN ALDEZKO JAUPARA

Gurari andija neban Mañari'ra juateko neure anai euskeltzaliakin batera bere gogo alde otoi egiteko, baña eziña dot; nire gogo guztija Mañari'n izango da egun orretan.

GOITARRA.

AZKOITI

MAÑARI'RA

Datorren igandian, gure irakasle maite Bustintza'tar Ebaista "Kirikiño" (G. B.)-ren gogo alde, izango dan jaupari, juateko gertu gera, lagunik izango detanik gure erritik zigur ezdakik "Gogorra". Nere bazkariaz agindu zeorrek. Ia bada euskel-idazle aldra aundi bat bertan biltzen geran. Datorren igandera arte, eta egun eder bat igarotzeko laguntza eman daigula gure Jaungoikuak.

LUGIÑAK

Deun Ixidor beren zaindarien eguna ospatu dute bere egunian "Madariaga"n beren ballerakuak, basatxonuan, Ixidor Donearen irudiaz ibildeuna, Jaupa nagusi abestua txonitza jaupari agurgarri Alberdi'tar Domeka'k, arratsaldian agurtza eta orrillako lorak, datorren igandian txadon nagusian ospatuko dute lugiñen bazkunekoak jaupa nagusia txonitzakin dala.

JUAN ETORRIAK

Zumaiko Jauregira udara igarotzera juan da bere sendiaz gure lagun abertzale aldun izandako Zelaya'tar Bitoren. Baita emen agurtu degu Bergarako lagun Gallastegi'tar Martin, Jerusalen aldetik bira egin da etorri dira apaiz agurgarri Alberdi'tar Andoni, Zabaleta'tar Yoseba Andoni eta Sudupe'tar Kepa.

ANAI IRAKASLE KISTATARRAK

Deun Jon Bautista Salleberen zaindarien eguna ostegunian ospatu dute, beren ikasle mutiltxo aldra ikaragarriz, esan liteke uriko geinak beokin dirala. Ederki egiña, onek kistar ikastia euskerazkoa irakasten dute, biarrekoa dutena lenbizi, gero onak izango badira. Goizian Jaunartzia jaupa abestuaz lekaime karmendarretan; arratsaldian beren ikastolako zeian pelotari gaztien partiduak, antxintxiketak, eta beste onelako euskal jolas askorekin mutikuen pozgarriz igaro zuten.

ERIOTZA

Ikurtonak artu eta gure Jaunak ludi ontatik eman digu gure lagun Juaristi'tar Nikola'ren arreba Miren neskatza gaztia, G. B. Laguntzen diogu atsekabian, otoi bat aren gogoen alde.

MUTRIKORA

Juan zaigu gure artean urte batzuek igaro ondoren neskatxa lirain abertzale zintzo Bullain'tar Miren, bere lagunak agurtzen dituala, ondo bizi bertan eta zintzo. Jarraitu aurrera, Mirentxu.

EGI-ALDE.

MAÑARI

Gaur, igandez, erri-onetako eleizan Bustintza'tar Ebaista zanaren alde emongo dan mezara eltzen zareen guztiyori, biotzetiko anai ¡agur! sutsu bat damotsuet.

Ildakuen alde egin geinken gauzarik andiyena otoitza dan ezkero, gaur euzkel-idazle ta euzkeltzale guztiyok otoitz dagigun "Kirikiño" euzkel-idazle bikaiñ eta euzkeltzale eredua zanaren alde G. B.

YUAN-ETORRI

—Bilbo'ra yuan ziran Goiti'tar Lone, Kapanaga'tar Pantzeska, Barrenetxea'tar Erramone ta Artzubia'tar Marka.

—Abadiño'tik etorri ziran Lamikiz'tar Pantzeska ta Lamikiz'tar Albontsa yaupariya.

IXIDOR DEUNA

Lugiñen zaindari eguna zala-ta, egunian yai artu zan. Zortziretako mezan umiek euren batzarreko yaunartzian euki eben. Arratsaldian, ordu bi ta erdiyetan egin zan eleizkizuna, orrillako lorak abestuaz.

MAÑARIKO.

ERMU

EUSKEL IDAZLIAK MAÑARI'RA

Gaurko iganderako dago eguna iminita "Kirikiño" zanaren alde jaupa bat ematia, bere txokuan, Mañari'n. Neu, tamalez ezingo naiz juen; baña uste dot, aldra ederra bilduko dala, ikusten danez, erri guzietatik dijuaz. Idazliok, danok anaitasunian elkartu, eta asmo ederrak artu, aurrera eruan daigun gure izkuntza.

Nere gogua or dago. Goyan bego "Kirikiño" zana.

IZPAR BELTZA

Jaunak deitu dau beren Donokira Ormaetxea'tar Joseba Jokin "Ureta" basetxeko gizon zarra.

Baita ere egun batzuk dirala eruan eban Izagirre'tar Andolin "Titiñu zarra". Gizon biok iduki dute urte mordo ederra, guztira egun eta irurogeta zazpi ¡zer pilla! Bion sendikueri laguntzen deutsubet atsekabian.

NEKAZARIAK

Beste urttan lz aurtn ere ospatu dute euren Zaindariaren egun ospagarria; amarretan eramanik jaupa nagusia, eta illuntzian bildurrik talde ederra apaitan.

Emen daukagu gure artian Bartzelonatik etorrita pelotari kementsua dan Suinaga'tar Deunoro "Matxin", gure lagun andia. Ongi etorria.

Gaxorik daukagu gure lagun eta euskeltzale dan Bengoetxea'tar Sabin Uriko osalaria.

Sendatu bada arin-arin. Opa diot.

¿NORA DEMONTRE JUAN DA?

Orain dala aldi luze bat, agertu zan atal onetan idazle berria, izenpetzen ebala "Untzaunatarra" agertu zan, emengo idazliari txonitz edo "sermoi" bat egiten idazten e zgiñibelako, ondo da, ¿nun da orain berori ari orduko porrot ala atzaparrak? perlejiak artuta al dituzuz? Idatzi bada idatzi, orain badago premiña zeozertxo esateko, ez gaude lo egiteko garaian.

ERMU ZALE.

URDULIZ

EUSKEREAREN ETZAYAK

Lengo baten Zornontzatik igaro nintzan eta erriko sarreran Amorebieta v'gaz ikusi neban idatzita. Eskarrez esan bei erri orretako euskeltzaleren batek badaki zergatik dan ori, ostera geltokian b'gaz dago. ¿Zergatik bape gatxik egiten eztaben geure izkuntzari ainbeste gorroto?

"KIRIKIÑO"-REN ALDE (G. B.)

Mañari're zoazen euskel idazleari agur ondo ibilli ta geure maixu aundiaren illobi ondoan i "Algorri" neure ordez be Aita Gure sutsu bat otoi egik, badakik igandez ezin joan nintekela ta.

GOGOR, GOGOR

Gazteiz'en izparringi zistrin batek urten ei dau ta lenengo geure Gotzain maitearen aurka jarri da automobillean dabillela ta, baña gogor urten dautso esanik berak beragandik eztabela berba egiten Aita Santuagandik baño, ta ixilik ezpadago zartadia jaurtiko dotsela. Baña entzunde daukot izparringi ori ataraten dabenak atzeko aldetik prakak zulotutek etorri zirela euskel-erriro, baña laster daukiela ustia automobillean ibilteko eurak be. Ta euskotar kokolo askok orreri jarraitu.

TXIBERRI.

ZEANURI

DEUN IXIDOR EGUNA

Andikiro ospatu zan lur langille yai au erri onetan. Goxean txistulari aldreak eresi ederrak yo ebezan. Amarretarako Deun Ixidor elexea gonburu aurkituten zan ibildeuna egin zan Urraburun zeyatik meza aurretik. Jaupa emon eban parroko jaunak Aldekoa da Gorostiaga yaupariak lagunduta itzaldia oso ederto. Aita Jazinto Karkeldarrak. Abeslariak bertakoak, Beobide abes zolie lagun ebela Aldekoatar Jon artezkari zala.

Eguraldi oso ederra egin eban. Abere sariketara polita ekarri ebezan abereak. Benetan abere ederrak.

Sariak artu ebezanak:

* * *

Parada edo apotegietano zekor Kapatzakoai

Lenengoa, 25 laurleko, Izagirre'tar Bingen.
Bigarrena, 20 laurleko, Olibares.
Irugarrena, 15 laurleko, Etxezarraga'tar Iñaki.
Laugarrena, 10 laurleko, Artetxe'tar Kepa.

Erri-beiyak

Lenengoa, 30 laurleko, Lapatza'tar Sebasten.
Bigarrena, 20 laurleko, Bazterra'tar Paul.
Irugarrena, 15 laurleko, Bengoetxea'tar Pantzeska.
Laugarrena, Goikoetxea'tar Estepan.

Erri bigantxak

Lenengoa, 25 laurleko, Atutxa'tar Anastasi.
Bigarrena, 15 laurleko, Zuluaga'tar Jon Joseba.
Irugarrena, 15 laurleko, Suin'tar Marka.

Suiza beiyak

Lenengoa, 25 laurleko, Urutxurtu'tar Mikel.
Bigarrena, 15 laurleko, Gortazar'tar Eujeni.
Irugarena, 15 laurleko, Larrazabal'tar Justa.

Suiza bigantxan

Lenengoa, 25 laurleko, Etxebarria'tar Jon.
Bigarrena, 20 laurleko, Sagarna'tar Gabin.
Endaki nasturik etzan etorri. Beirik... bigantxak bai.

Bigantxak

Lenengoa, 15 laurleko, Uriarte'tar Jone.
Bigarrena, 10 laurleko, Olibares'tar Joseba.

Idi bearrerakoak

Lenengoa, 15 laurleko, Ugarriza'tar Jon Joseba.
Bigarrena, 10 laurleko, Etxebarria'tar Kepa.
Irugarrena, 5 laurleko, Bilbao'tar Yagoba.

Idi lodiek

Lenengoa, 15 laurleko, Gorostiaga'tar Bonipagi.
Bigarrena, 10 laurleko, Intxaurbe'tar Euloji.

Makerak umedunak da umegintzarako

Lenengoa, 10 laurleko, Etxandia'tar Julen.
Bigarrena, 10 laurleko, Beobide'tar Silberi.
Irugarrena, 5 laurleko, Goikoetxea'tar Estepan.

Ardi taldea

Lenengoa, 10 laurleko, Etxeandia,tar Julen.
Bigarrena, 10 laurleko, Beobide'tar Silberi.

Aritoa

Beobide'tar Silberi.

Urtera eltzen etziran txalai

Lenengoa, 10 laurleko, Etxabe'tar Agustin.
Bigarrena, 5 laurleko, Sagarna'tar Gabin.
Irugarrena, 5 laurleko, Lapatza'tar Sebasten.

ARRATSALDEAN AGURTZA ONDOREN

Lauretan, lagun asko bildu zan Urraburun Zeyan pelota yokoa ikusten Zufiria da Berriozabal'ek Anza da Barandika Galdakao'koen aurka. Areatzakoak irabazi eben 16 itxirik Galdakaokoak.

Gero txistulariek oso polito yo ebezan dantzak. Mutil gazteak 15, 12, 8 urteko mutilak praka zuri da txapel gorriakaz lagun asko euroi begira ikusten zan... da ederto yarraitu eban yolasak... Baña gero bakea egoala ta... praka pinton goi ariñek auspo soñua yo gurarik ibili zalata entzun gendun da eztakik berea lortu eban edo ez...

Illunkeran goxetik biribilketagaz amaitu zan.

ERIOTZAK

Ipiñaburu'n 88 urtegaz oso bizkor ointzurarte egon dan Zuluaga'tar Bernardino (G. B. il da. Baita Aranguren basetxean il da Abadia'tar Josefa andrea. Laguntzen dautsegu atsekabean sendiari ta otoi euren arimen alde erritarrok.

"KIRIKIÑO" JAUPARA

Gure izan dodanez ezin izango naz yoan igandean Mañari'ra. Biotzez zeuokaz nozue batzen zaren idazleok. Da emendik otoi egin bearko gure irakasleen alde.

BASERRITAR BAT.

¿NON ETE LORA?

Aldi luzean nabil ain arduratsu
okellurik-okellu gogoz ta sutsu
eztot beste itaunik nazan tokian...
¿Ete dago lorarik Euskel-errian?
Barre egiten duste, ¿zer ete dagi?
txoraturik ez ete giz-gaixo ori?
lora billa mendian negu-billosan?
ezin aldirik galdu zindoak olan.

Enago erotuta, itxi geldirik,
neure lora biar dot goiti nai betik
yakin gurozu iztaz mindu nozuna
¿zein margogaz eiña dan beodan lora?
Espantxo gorriakaz begiak zuri
beren matrallatxoak oingo orlegi
bekokian asi ta bularrerarte
iru kurutze dituz amak itxite.

Guztiz da usaindua beren gorputza
ez uste dagoanik ¡ez! ustalduta
ezin ustaldu iñoz zindo-zindorik
ezta be arantzatu lora ixanik
idoroko dot lora ba-noa billa;
esan adiskideak ¿non izango da?
Ikusi dot mendia bai ta ibarrak
Arakaturik dodaz ibai baztarrak.

¡Erdure illak daben baratz-deunera!
sarri bakar lekuan lorak oteira...
Begira kurutzeti sorkalderantza,
lur eraiñen azpian, ¿zer ikusten da?
Begiak ezertxo be eztau ikusten
baña biotza dabit ¡an! erakusten...
Unbeikaz daoz barruan lora sustraiak
zuri-gorri-orlegiz zillez beteak.

¡Len loratxo bat zanak unbeikaz asi
Egiaz baratz ori ezta erruki!
Loratxo bakarragaz ain zan apaña
yantzi orduban dana ¿zer ixango da?
Au bai poza biotzan artu dodana
lorea aurkitu dot azian dana
"Kirikiño"-k erain da ¡au bai asia!
¡Euskaldun utsa laster Euskal-erria!

ZIDORRA.

Zeanuri'tik.

Neure lanak urrinduko naun arren biotzez laztanduten dodaz Mañari'ratzen diran "Kirikiño"-ren adiskideak...

DONOSTIA

MENDIOLA'TAR IÑAKI (G. B.)-REN GOGO ALDE

Biar igandea, goizeko 10'an, Josulagunen txadonan, Eusko Etxeko bazkide lagunen aginduz; lagun on, ta abertzale zintzo Mendiola'tar Iñakiren gogo alde, jaupa abestu bat izango da.

Jaupa ontara etortzeko, Eusko Etxeko bazkide lagun ta adiskide guziairi dei egiten zaioe.

Orobat, E. Etxeko abeslari, ta beste lagun guziairi ere.

OLERKI JAIRAKO

Datorren illaren lenengo egunian, Errenderin egingo dan, olerki jai eguneko bazkarian, bazkaldar izan nai du, benak, Eusko Etxean irikita dagon izendian bere izene ematia oso biarrekua da.

Oso biarrekua da, gauzak ondo egin nai dirata, ta gauzak ondo egin ditezen, ill onen 20'ako, eman esandako izendian bazkari orretan izan nai dutenen izenak.

IZPARRINGI BERRIA

Datorren illaren lenengo egunian irtengo dala diote,

Oraingo izparringi berrien antzera, motza ta orriz ugaritua.

Argazkiak ere izango ditu.

Izena, apaiñ ta margoztutako izkiz egiña.

Lenengo egunetik izango duben Euskel-atalaren buru, guzien ezagun dan, Arzeluz'tar Ander (Luzear) idazle argi ta abertzale ona izango da.

Ontan buruz jokatu dezute, "El Día"-ren antolatzelleak. Zorionak Ander.

"KIRIKIÑO" (G. B.)-TZAZ OROITZEN

Mañari'ko ortu Deun apal ta ixil artan, euskerak izan duben langille ta ongille bikañetako, gizon zintzo ta abertzale sutsu bat obiratuta dago.

Euskotar bulartsua, bere elia goratze arren aberriko elia sendotzearren, ludi ontan berdiñik ez duben gure euskera zaindu ta indartze arren, gogo, adimen ta biotz guzia jarri duben "Kirikiño" ona.

Aren gogo alde otoiztera, illobi aurrean belaunikatzera, guaz biar Mañari'ra, euskel idazliak.

¿Asko bilduko gera? bai, asko bilduko gera, "Kirikiño" ill zanian euskel idazliak idazkiz azaldu genion maitasuna, egiazkoa data.

"Kirikiño" gogo aldeko omen ontara gertutzeko, ez degu noski euskel idazliak zirikada zorrotzik biarko ¡egiz maite gendun ta!

¡Euskel idazliak, biar arte!

ATARRENE.

GETXO - NEGURI

"ERRI"-RI

Lengo egunian agindu neban zerbait izparringi onetara, beste zeure idazki batera erantzuten, baña eztakit galdu ala zer jazon ixan yakon, ba, eztabe argitaratu.

Gitxi gora-bera auxe zan:

Zuk esaten zenduban gogor ekin bear dogula, txadonatan geure izkuntzea entzun arte, ta nik erantzuten neutzun ederto zagozala, ta alan egin bear dogula.

Bat edo bestek esango dabe erri onetako biztanlerik geyenak erderea euzkerea lez ulertuten dogula, ta orregaitik emen eztagola zetan ardurarik artu txonitza eta elizkizunak erderaz egiten diralako; baña nik diñot, bayetz, ardurea artu biarrian gagozala danok, ba euzkeriari geure errijan indarra emon bear dautsogu.

Erderea ulertuten dogula, ta orregaitik euzkerea baztarreratu, ori iñoiz bez euzko semiak. Ori da bardin geure ama alboratutia, beste bat aberatsago, edo politago dalako.

Norberantzako eztago norbere ama baño obeagorik, eta alan ixanik, euzkereagaz be gauza bardiña jazoten yaku, ori da, euzkeldunak gara, ta euzkerea baño obeagorik eztago geuretzat.

Orregaitik gura dogu, erderea ondo ulertu arren, egin daizku bela euzkeraz.

Baña, beste gauza bat jazoten da erri onetan, gauza benetan garrantzitsua ta da auxe:

Beste erriko auzoetan eztakit, Algorta ta Getxon beintzat ezta ori jazoten, ba jaupari euzkeldunak dagoz, baña emen Neguri'n, gurari ona euki arren, daukaguzan jauparijak eztákije euzkeraz itz egiten. Bat dago orain euzkalduna, ta diñue laster asiko dala goxeko seiterdietako jaupan euzkel txonitzak egiten, baña bestiak eztira euzkeldunak.

Nik diñot orain gauza bat. Jaupari oneik gurari ona dauke benetan ta euzkeldunak maite ditube, eta gañera jaupari zintzoak dira, beti dagoz gerturik, uskurtz alde egiteko, eta orregaitik uste dot erraztasun guztijak emongo dauskubezala Deun Iñaki txadonako jauparijak, eta erriko euzkeltzale ta abertzale danok batuten bagara, edo batzuk batutia bardin da, Deun Iñaki txadonako arduria daukon Bilbao'tar Iñaki jaunagaz ulertu ta geuk ordaindu ezkeron ekarri geinke igande guztietarako txonizlari bat, esate baterako goxeko zortziterdijetan egin daizkun txonitza euzkeraz, eta alan urtian bein-edo, gogo-jardun edo ejertzitzio batzuk be egin leiz euzkeraz.

Neure eritxi bat baño ezta au. Danon artian ezer ez batetagaitik egin geinke. Alan zabalduko geunke euzkerarako zaletasuna errijan, eta gerorago ta geyago, bear-bearrekotzat imini bearko litzakez euzkerazko txonitzak, eta elizkizunak gero.

Zuri zer deretxu adizkide begikua?

TORKATIKO.

OTZANDIYO

JUAN ETORRI

Bilbo'tik Biteri'tar Bingen gure aiskide zintzua.

ELEIZKIXUNA

Ederra ein zan Yoseba deuren zaindaritza egunian:

ITZALDIYA

Amunategi'tar Eulali abak ederto egin eban eta beti lez yeutia pozik berari entzuteko.

BULKANOTARRAK

Apur bat bizkortu dira gure mutillok ba, sarri ikusten dira erriko zeyan.

EZKONTZAK

Larunbatian ezkondu ziran Zumelzu'tar Domeka ta Ajuria'tar Todore; Larrinaga'tar Kastor ta Astola'tar Terese. Zorionak.

LANTEGIA GEITU

"Omega"-kuok lur zati bat erosi dabe lantegiya geituteko asmoz. Ori izpar ona; ordu onian izan daitela.

ALKAR-IZKETA

—¡Kaixo, Txorromillo!

—Arratsalde on, "Bekoleta".

—¿Ze barri dok uriyan?

—¿Ze barri? Ointxe naiyatok guzur-aurkitik zabel guztiya mindute barrien barriaz.

—¿Zer dala-ta?

—Ba, Otzandiyo'ko atso ta agura guztiyok zoratute dabizela musika soñuan yantzan.

—¡Ori baño ezpa'dok! Emeko yentia alaiya dok eta sarri ikusi yuagu orrenbeste.

—Baña Maipa eztok ikusi izango.

—Ez.

—Ba, nik Maipa ikusi yuat.

—¿Zer diñok, mutil, Maipa yantzan ikusi dodala?

—¡Bai, gixona! Aren arnasa otza ta izerdiyak andiyak ixan zuazan. Neuk "guzur-aurkitik" entzuteko, ¡kontu ataraik zelanguak izango ziran aren arnasaotzak! Altos Hornos'ko "soplantiek" bez.

—Zoratu dok ala?

—Urrian bai.

—¿Eta nogaz?

—Beralako gizon gizen-gizen bategaz. Biyen artian zenbat kilo daukela uste dot?

—"Eun da berrogei" bai bere tayukua izan ezkero.

—¡¡Eun da larogeta amabost!

—¡Yosu, Miren Yoseba ta zeruko deun guztiyak, aulakorik! Olako "zilindruak" ezin leikian ganoraz yantzan, ezelan be.

—¡Ganora itzela gero! ikustekua za, zelakotxairo "buelta" ei-orduan Maipak txirluari eraiten eutsan. "Gutxik" baño bizkorrago.

Eskerrik asko, Txorromillo, ta urrengo arte.

BEKOLETA.

UBIDE

ELEIZKIZUNAK

Mayatze'ko lorak geure euskera ederrian oso ederto eiten dire erriyonetan abesti ederrakaz eta oste aundiyaz.

GOTZAIN AGINDUA

Gure txaunburuak irakurri eban eta emeko gonamotz eta papar zabalok lotsatu ebazan.

LUGIÑAK

Oso itun arorik eztaukelako euren ereitzak eiteko. Artzaiñak be bardin, baña otzo galgarriya ondatu dalako poz apur bat badauke.

POZTUTEN GARA

Entzu dogunez, aurtengo udia igaro arte eztoiaz Txilera gure aiskide maite ta erriskide zintzo Iza'tar Errestituta ta emaztia. Emeko inguruetako erbiyok txarto ibili biar dabe, ba onek yarraituko deutsoe. Ondo igaro.

"BEKOLETA"-RI

Ondo baño obeto deritxogu Arrese ta Beitia'ren omenez uri orretan eingo diran olerki yaiyari, ta Ubideko abertzale guztiyok an gara, Goikua lagun, egun orretan. Emen be ba'dagoz orko-antzeko "marrajuek", baña onek be doiazala Patxuen auspo-soñuan Sevilla'raño. ¡A zelako bakia!

YAURIKO.

OÑATI

Agindua zorra dala dio esaerak eta banator ni ere lenguan agindu nuan bezela gai berari jarraitzea.

Gure Gazteizko Gotzai agurgarriak Iruñako Goterkitik Gazteiz'ko Goterki onetara etorri zanetik, zenbat eta zenbat agindu berri eman ez ditu elizako gauzatan? Eta iñora joan gabe, igaroko lau; bost urte onetan zenbat aldakuntza ikusten ez ditugu gure eliza nagusian bertan be? Len zeuden gauza asko ez ditugu ikusten beste asko berriak, len aldebatian zeudenak orain beste leku batian, aldakuntza oiek egiteko agindu dituztenak etzituzten asmo txarrez aginduko onagatik bañok, orregatik gauza orretan ez diote begiratu oitura zarrak ala berriak diran gauzak aldeketako, eta ni ere orretan nago, gauzak egin beardirala onduen diran erara.

Gure Jaungoikuak beste izkuntza askoren artean ere egin zuan gure euskera maitia be, eta orain artian, beste zenbat izkuntzak izan duan goitasuna erri salerosketarako izan ezpadu ere Jaungoikua bera opoltzeko beintzat beste izkuntza askoen artean berezi enetako bat badala ezen bildur gabe ezan genezake, eta argiago ikusi dezagun gauza oiek ondoren jarriko ditut lenegoko eta oraingo Gotzai Josulagun eta apaiz batzuen egi ederra: "Jesusen lagundiko aita jakintsu Kardaberas'ek bere "Euskeraren berri onak" deritzaion idaztian auxen jartzen zuan: "Euskerak buruak jasotzea Jaungoikoak naidu".

Aita Larramendik "Euskaldun fededun" "Baionako" Gotzai jaunak, Euskalerrian zear bere ibillialdian egin ondoren esan zuan, Erri onek bere sinistea ongi zaitu du. Ortarako zer laguntza izan ote du. Asko; baña laguntzalle aundia, ezbarrik gabe bere izkuntza, euskera izan da". Orain Gazteiz'en daukagun Gotzai agurgarriak Iruña'n gotzai zegoala esandako itzak. "Naparroan euskerak erlijoari asko laguntzen diola neronek ikusi det. Euskera uts-utsik darabilten bazterretan eta erderazko paperak sartzen ez diranetan, apezak askoz obeki daude ta beren erriak errazago zaitzen dituzte lengo l(engo) oitara zar-ederretan". Orkaiztegi'tar Patrizio apaiz jaunak Tolosa'ko errian txaunburu urte askuan egondakuaren itzak: "Euskerak neurki bat galtzen badu sinismenak amar neurki galduko ditu". Eguzkitza apaizaren idazti batian irakurtzen diran itzak "Gure sinismenak laguntza asko izan ditu; Jaunarena lenbizi; baña eguzkiaren azpian izan duanik onena, euskera. Euskaldunak eztu euskeraz añen eta biraorik esaten. Euskeraz esan ezin ditekean gatiztakeria ote da? Ez, ortan asi ezkero, euskeraz ere esan diteke, baña euskera garbiak ortarako egiña, erabillia, oitua dan esakunik eztu ta biraoa zakarra jaurti nai badu euskaldunak, lenbizi euskera utzi ta ukatu egin bear izaten. Itxasotik urtendako urak berriz itxasora dijuazen bezela, Jaunak eman zigun